

THIRTEEN

3.DBH
2014-2015

Thirteen pelikula ikusi duzue eta orain bertan lantzen denaz hausnartzeko hainbat galdera daukazue, mesedez ez erantzun bai edo ez, arrazoitu zuen erantzunak eta aprobetxatu iritzia emateko. Zuen ikuspuntua ezagutu nahi dugu.

- 1- Deskribatu 2 protagonistak, Tracy eta Evie, baina ez fisikoki, beraien nortasun baizik, izateko era.
- 2- Zuk laguntasunaz duzun esanahiarekin bat dator Tracy eta Evieren harremana? Harreman sanoa dela uste duzu? Nori egiten dio kalte gehien harreman horrek? Pelikulako oprotagonistak 2 mutil balira uste duzu harreman verdina edukiko luketela? Arrazoitu.
- 3- Pelikulan zehar Tracyk eboluzio bat izan du? Nolakoa? Zer gertaera edo momentuk izan dute aldaketa horretan eragina?
- 4- Bere bizi estilo aldaketak bizitzako hainbat arlotan eragin diola uste duzu? Zeinetan? Nola?
- 5- 2 "familia" agertzen dira pelikulan. Ze ezberdinatsun dago bien artean? Nola jokutzen du ama bakoitzak? Eta Tracyren aitaren jarreraz zer esango zenuke?
- 6- Gurasoak bananduta edukitzeak eta amak mutil lagun berria, Tracyren jarreran ba al du eraginik? Nola bizi duela uste duzu hori? Zuk bere egoeran berdin jokatuko zenuke?
- 7- Amaieraren inguruan zer komentatuko zenuke? Hortik aurrera Tracyk nola jarraituko duela uste duzu?